

BERMEO

TURISMO- GIDALIBURUA



BERMEO, ITSASOAREN ARIMA

Kostaldea, itsasoa, portua, hotz uzten ez zaituen jendea... Bermeo Bizkaiko gatza gara, gatz oso-osoa, bai paisaian eta baita gure izaeran ere. Euskal enbaxadore handiak, Gaztelugatxeko San Juan, Matxitxako edo Izaro moduko Kantauri itsasoko bitxien bitartez.

Gure jatorria, gure historia, ezin dira itsasoaren presentzia barik ulertu. Duela hainbat mendetatik hona, gure itsasoko jendeak galernei eta denboralei egin die aurre ozeano guztietan, eta horrek arrantzarekin eta merkataritzarekin erlazionatutako gure jarduera markatu du. Bermeoko portutik, Europako itsas potentzia nagusiekin lehiatu gara. Aipamen historiko bezala, esan behar da Juan Sebastian Elkanoren munduko lehen birako kontramaisua Juan de Acurio nabigatzaile bermeotar handia izan zela.

Mendeetan zehar, bale arrantzale ospetsuak izan gara, eta horregatik herriko armarriak balea bat arrantzatzen ari den itsasontzia erakusten du. Are gehiago, gaur egungo tokiko ekonomia arrantza-industriarekin estu lotuta dago. Baina lurra ere bagara, gure landa auzoekin, Sollube mendiarekin edo Tribisburu nekropoli erromatarrekin. Baita Atunaren Munduko Hiriburua ere, atunaren arrantza iraunkorrean nazioarteko potentzia moduan:

WWW.BERMEOTUNAWORLDCAPITAL.ORG

WWW.BIZIBERMEO.EUS

NOLA HELDU BERMEORA: ►



EZINBESTEKO BISITAK

Kantauri itsasoko itsasertz osoko hiribildu garrantzitsuenetakoa gara, eta gure historiaren eta kulturaren zati handi bat osorik daukagu, landa inguruko auzoen eta itsaslabarren artean idatzita dagoelako. Don López Díaz II de Harok sortu zuen 1236an, eta 1602. urtera arte Bizkaiko hiriburua izan ginen.

Zauden txokoa zaudela, erraza da Bermeoren historia eta nortasuna arnastea. Hala ere, ezinbestekoa da 12 leku hauek bisitatzea, herriaren sustraian eta historian murgiltzeko.

1 SANJUANPORTALE

Jatorriz Erdi Aroko harresiaren parte ziren zazpi ateetatik zutik dagoen bakarra da. Gaztelugatxeko San Juanerako irteera naturala da. Kondairen arabera San Juan hiru pausotan heldu zen Gaztelugatxera eta hemen dago lehenengo oinatza.

2 ANDRA MARI ELIZA

Bizkaiko arkitektura neoklasikoaren lan esanguratsuenetakoa. 1783an eman zen eraikitzeko agindua, Talaiako Andra Mari Eliza handia 1790ean aurri-egoeran zegoela erabaki ostean. 1858an inauguratu zen.

3 UDALETXEA

Bizkaiko neoklasizismoaren beste erreferente handienetakoa. Goiko plazan dago, Andra Mari elizaren parean, eta 1732an eraiki zen. Fatxadan, eguzki-erloju bi ikus ditzakegu.

4 ALDE ZAHARRA

Bermeo Bizkaiko Jaurerriko buru izatera iritsi zen garaiko Erdi Aroko hiribildua zorrotz irudikatzen du. Ekialdetik mendebaldera doazen kaleak malda irregularretatik igotzen eta jaisten direnekin gurutzatzen dira, eta horrela Euskadiko hirigune historikorik zaharrenetakoa eta handienetakoa eratzen da.

5 FRANTZISKOTARREN KOMENTUA ETA KLAUSTROA

Bizkaian egin zen fraideen lehenengo komentua izan zen, Bizkaiko jauntxoek 1357an sortua. Klaustroa egunero dago zabalik.



EZINBESTEKO BISITAK

6 LAMERA

Aisialdirako lekua, itsasoari irabazitako lurrari esker. 1905era arte itsasontzientzako ainguralekua izan zen. Lameratik arrantza industriadako interesgarriak diren lekuak ikusten ditugu: izozte-planta, ontzio-l... portuaren hegoaldeko kaian daude.

7 SANTA EUFEMIAKO ZIN-EGITE ELIZA

Bermeoko elizarik zaharrena. Bere berezitasunik handiena zin-egite eliza izan zela da. Bertan, jaun feudalek foruak zin egiten zituzten.

8 PORTUZARRA

Bermeotarrek Portuzarra esaten dutena arrantza portu tradizionala da. Arrantzaleen etxeek Erdi Aroko trazatua eta forma dute.

9 ERTZILLA DORREA/ARRANTZALEEN MUSEOA

XV. mendearen amaierako eraikin zibila. 1943an Monumentu Nazional izendatu zuten. 1948tik Arrantzaleen Museoa hartzen du. Mundu mailan, modu eksklusiboan euskal arrantzaleen bizitza eta lana erakustera bideratutako museo bakanetakoa da; haien bizimodua eta ohiturak, itsasontziak eta denboran zehar arrantzarako eta arraina merkatu-ratzeko erabilitako teknikak erakusten ditu.

10 TALA

Hiribilduaren goiko aldean dagoen begiratoki ikusgarria. Bere garaian talaiariarentzat dena ikusteko lekua izan zena, gaur egun, Bizkaiko Golkora begira dagoen hirigunearen barruko birika berdea da. Bailearen arrantzari buruzko murala dago bertan.

11 UDAL AZOKA

1995ean sortua (ordura arte San Frantziskoko Klaus-roan zegoen). Astelehenetik zapatara zabalik, jarduera handieneko egunak martitzenak eta zapatuak izaten diren arren. Eskaintza arrandegietatik, harategietatik, fruta-dendetatik eta urdaitegietatik hasi eta loreetaraino doa. Finkoak ez diren baserriarren zenbait postu ere baditu, elikagai freskoen salmentan espezializatuak.

12 ARITZATXU

Urre koloreko hareazko kala txiki eta erakargarria, harkaitz handi eta ikusgarri inguratua. Familiek bisitatzeko dute hareatza da. Marea goian dagoenean, hondartza asko txikitzen da.





GAZTELUGATXEKO SAN JUAN

Leku magikoa, Euskal Herriko bitxi handienetakoa duen kokapen pribilegiatuari esker. Lurraren eta itsasoaren arteko borroka ugariatatik sortutako uhartean dagoen baseliza idilikoa eta pintoreskoa da, edertasun naturala du, baita mendeetan zizelkatutako arkuak eta kobazuloak ere. Harritzko zubitik eta 241 maila dituen eskaileratik iristen da bertara.

Bermeotarrek fede handia diote santuari, eta horregatik baseliza botozko opariz beteta dago. Ekainaren 24an, San Juan egunean, bermeotarrak baselizaren inguruan biltzen dira jaieguna ospatzeko.

Lekuaren ikusgarritasunak Euskadiko lekurik bisitatuenetakoa bihurtu du; are gehiago, zinema eta telebista ekoizpen handien agertoki ere bihurtu da. Baina Gaztelugatxe, batez ere, bermeotarrentzako leku adierazgarria da.

INFORMAZIO PRAKTIKOA:

1 Biotopo babestua da, eta bertara sartzeko ezinbestekoa da aldeztasunetik erreserba egitea <https://web.bizkaia.eus/eu/gaztelugatxe> webgunean, eta baita garraio publikoa erabiltzea ere <https://www.bizibermeo.eus/gaztelugatxe-eta-matxitxako> helbidearen bitartez.

2 Gaztelugatxeko San Juanera igotzeak ahalegin fisiko handia eskatzen du. Oinetako egokiak eramatea beharrezkoa da, eta bero egiten duen egunetan ura eramatea ere komeni da.

ZER EGIN BERMEON

SENDAZALETASUNA: Nordic walking ibilbideak

Bermeo itsasoa da, baina baita mendia ere. Udalerriko landa-eremu zabala bederatziz landa-auzotan zabaltzen da, bakoitza bere baseliza bitxiekin, antzinako baserriekin eta jai herrikoiekin.

Lau nordic walking ibilbide daude, bakoitza bere zailtasun mailarekin (guztiak hasten dira turismo bulegotik).

BEGIRATOKIAK

Bermeoko begiratokieta jarri, arnasa hartu, behatu, harritu, usaindu, erlaxatu... eta gehiago.

ARKITEKTURA GARAIKIDEA

Bermeoko arkitektura garaikideak Bizkaiko eskualdeburuan oso ohikoa ez den kalitate-maila erakusten du, eta, horrez gain, bertako arkitektoen garrantzia ere kontuan izan behar dugu. Beste batzuen artean, Teodoro Anasagasti, Pedro Ispizua edo Fernando Arzadun arkitekto bermeotarrek osatutako belaunaldi aparta, euren garaiko onenen artean baitaude.



INFORMAZIO GEHIAGO



INFORMAZIO GEHIAGO



INFORMAZIO GEHIAGO



BERMEOKO ESKULTURAK



1. BENITO BARRUETAREN OMENEZKO MONUMENTUA: Nestor Basterretxearen lana, egurrez eta zementuz egina. Gaur egun Arrantzaleen Museoa dagoen Ertzilla dorrean, bere aitak aroztegi baten lan egiten zuten lekuan, jaio zen margolari bermeotarraren izpiritu bizia irudikatzen du. Talan.

2. ANDRAZKO ARRAIN SALTZAILEAK: Sanjuanportaleko arkuaren bi aldeetan, Bermeoko goialdean. Enrike Zubiak egindako lana da eta ofizio horrek herrian duen garrantzia omentzen du.

3. AZKEN OLATUA, AZKEN HATSA: Enrike Zubiaren lana. Brontzez eta zementuz eraikia, gazte baten eta txakur baten aurrean dagoen itsasoan galdutakoaren historia kontatzen du. Bermeoko portuzarrean.

4. PORTUKO ITURRI NAGUSIA: Karlos I.a enperadorearen erregealdian eraikia (XVI. mendea). Bizilagunek erabiltzeaz gain, arrantzako eta merkataritzako itsasontziek bertatik ura hartzeko ere erabiltzen zuten. Goiko aldean, Bermeoko hiri-bilduaren, inperialaren, eta Bizkaiko Jaurerriaren armariak daude.

5. BADATOZI!, ARRANTZALEAK OMENTZEKO MONUMENTUA: Enrike Zubiaren eskultura, arrantzale familia bat irudikatzen du, gertukoak noiz lehorreratu ziren. Torronteroko begiratokian.

6. OLATUA: Nestor Basterretxearen eskultura erraldoia da, eta, egileak adierazi zuenez, Bermeoren indarra eta edertasuna irudikatzen ditu. 2006an inauguratu zen.

7. ALONSO ERCILLA: Alonso de Ercilla olerkariaren (1533-1594) brontzezko bustoa harrizko idulki baten gainean. Bermeon denboraldi luzeak ematen zituen Antonio Loperena Eserverri (1922-2010) eskultore madrildarrak 1997an egina.

8. EUSKAL SERIE KOSMOGONIKOA: 18 pieza, Nestor Basterretxeak egina, Lamerako buru, Kasino ondoan.

9. ITZULERA (MUTILTXUE): portua babesten duten kai-muturretako batean, arrantzale baten etxerako buelta irudikatzen duen brontzezko eskultura. Casto Solanoren lana, Sevillako EXPO92an erakutsi zen.

10. XIXILI: Jose Luis Butronen lana, 1980koa. Lamerapunte dikearen amaieran dago eta olatu-hormatik ikusten da. Xixilik enborra, besoak eta andrazko burua ditu, eta gainerakoa arrain itxurakoa du, ahate oinekin, hiru arrantzale buru irudikatzen dituen idulki baten gainean dago, ahoa zabalik du, eta itsasoan itotzen ari da, Lamiareneko lamiak Lamerapunteko harkaitzetara jaisten zirela esaten zuen kondaira gogoraziz. Arrantzaleak maitemindu eta erakarri egiten zituzten eta, besoetan zituztenez, Ogoñora eramane eta bertan hil egiten zituzten.

11. ILARGI AMANDREAREN MAMUAK izena duten hiru "Mamuen" brontzeak, Nestor Basterretxearen (Bermeo, 1924) lanak dira. Erreten Lameran.

12. HILARRIAK: Frantziskotarren klaustroan. Nestor Basterretxeak dohaintzan emandako piezak.

13. ANDRAZKO ESNE-SALTZAILEA: Enrike Zubiak egindako lana, esnea banatzen ari den emakume bat erakusten du, bere astoaren ondoan. Bere kokalekua oso garrantzitsua da, izan ere, baserritarrak bertarino, portuaren kanpoalderaino, iristen ziren-eta.

14. TARASKA: Antonio Ibarran ingeniariak diseinatutako iturria. Frantzisko Deuna plazan dago.



Bermeoko eskultura guztien kokapenak erdialdeko orrialdeetan dagoen planoan aurkituko dituzu.

GASTRONOMIA

Bermeoko gastronomia arrantzari lotuta dago, iparraldeko hegaluzeari eta atunari batez ere. Udaberrian berdela eta antxoia dira itsasoko beste protagonistak, udan txipiroiak eta urtean zehar zapoa, erreboi-loa, legatza... Baina Bermeok landa inguruko 9 auzo ere baditu, eta, beraz, bertako haragiak eta baratzeko produktuak ere presente daude herriko plater tradizionaletan.



ATUNAREN MUNDUKO HIRIBURUA

Bermeoko garapen ekonomikoa hegaluzeari (atuna) estu lotuta dago. Bizilagun askok tunidoen arrantzan eta kontserba-industrian lan egin dute eta egiten dute.

Hegaluzea Bermeoko tradizioa, Bermeoko historia, da. Gaur egun, arrantza jasangarriko jardunbide onenetan mundu mailako erreferentea izateko lan egiten dugu. Atunaren Munduko Hiriburua gara (www.bermeotunaworldcapital.org). Itsasoen iraunkortasuna bultzatzen duen erakundea da.



ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA

Bermeo Arabako Errioxari lotuta dago Oiongo udalerriaren bitartez. Duela mende askotatik elkarrekin lotuta dauden bi leku dira, ardoaren eta arrainaren ibilbideari esker. Antzina, Bermeoko arraina Gaztelarantz garraiatzen zen, eta, ondoren, ardoz kargatuta itzultzen ziren, itsasoko hiri honetako portutik esportatu ahal izateko.

<https://turismo.euskadi.eus/es/rutas/gr-38-ruta-del-vino-y-del-pescado/a330-12375/es/>

JAN ETA LO EGIN BERMEON



NON JAN

Pintxoak, arrain freskoak txingarretan, itsas-kiak, plater konbinatuak... Bermeok gustu eta poltsiko guztietarako eskaintza gastronomikoa du.



Hori bai, denek dute ezaugarri komun bat: kalitatea. Izan ere, itsas ondoko herri honetan oso zaila da bilatzen duzuna ez aurkitzea. Taberna txikietatik hasi eta goi mailako jatetxeetara. Guztiek ere gure herrian igaroko duzun denbora paregabea izaten lagunduko dizute.

Eta ezin duzu dastatu barik utzi gure herriko osagai nagusia: hegaluzea. Prestatzeko mila modu daude. Ezagutu itzazu! Eta, gainera, hartu kafe bat edo kopa bat Bermeoko establezimendu ugarietako batean, edo, gurago baduzu, egin “txikiteo” bat horietatik. Animatu zaitez!



NON EGIN LO

Bermeok gaua igarotzeko hainbat aukera ematen dizkio bisitariari: hirigunean bertan dauden hotel dotoretatik auzoetako xarmaz betetako ostatuetara.



Herria bisitatu ostean ez badugu gure ibilgailua hartu gura eta oinez jarraitzea gurago badugu, Bermeok herrigunetik larregi mugitu barik lo egiteko hainbat aukera eskaintzen dizkigu. Bilatzen duguna lasaitasuna eta natura baldin bada, landetxeak aukera bikaina izan daitezke. Baserri tipiko batean lo egitea, merezi duen esperientzia da, zalantza barik.



BERMEO, GOZATU ITSASOAZ!

BERMEOTIK ABIATUTA NABIGATZEN:

Itsas txangoak egiteko aukera ugari. Bermeo itsasotik sentitu:

ENPRESA	ITSASONTZI MOTA	WEBGUNEA	TELEFONOA
Hegaluze	Bidaiari-ontzia	www.hegaluze.com	666 79 10 21
Bay of Biscay Sailing	Katamarana	www.bayofbiscaysailing.com	605 746 761
Matxitxako Nautika	Belaontzia	www.matxitxako.net	

URPEKARITZA, PIRAGUA, KAYAKA, STAND UP PADDLEA...

Sentitu Bermeo modu aktiboan:

ENPRESA	ITSASONTZI MOTA	WEBGUNEA	TELEFONOA
Urdaibai Kiroleroak	Kayak/paddlea surfa/ bizikleta	https://urdaibaikiroleroak.com	666 79 10 21
Olatu	Urpekaritza eta itsas pasealekuak	http://www.olatu.net	605 746 761
Txof	Urpekaritza	http://www.bajoelagua.com/ centros-buceo/vizcaya-txof- buceo.html	656705226



BISITA GIDATUAK

ARRANTZALEEN KOFRADIA: Taldeentzako bisita gidatuak



Sar zaitez arrantzaren munduan, eta gozatu esperientzia paregabe honetaz “emakume saregileen” eta “neskatilen” eskutik: arrainaren enkantearen funtzionamendua, sareak josteko artea, kostera desberdinak, arrain-kontserben dastatzea...

www.bizibermeo.eus

TOPA BERMEO: Bisita lagun artean edo familian



Bermeoko historia eta alde zaharra ezagutzeko ihes jokoak. Aukera paregabea da Kuadrilan eta norberaren ritmora herriko guneko historikoan bisita autogidatu dibertigarria egiteko.

<http://www.topabermeo.com/>

IBILBIDE GEOLOGIKO GIDATUAK BERMEON



Bermeoko flysch beltza, Aritzatzuko olistolitoak, Matxitzako eta Gaztelugatxe ingurua...

<https://www.naturtek.es>

URDAILIFE: Bermeo, historian zehar



Bermeotarren izaeran historiak izandako eragina ezagutarazteko ibilbidea Bermeon zehar.

www.urdailife.com

EZINBESTEKO BISITAK VISITAS ESENCIALES

1. **SAN JUAN ARKUA** / ARCO DE SAN JUAN
2. **ANDRA MARI ELIZA** / IGLESIA DE SANTA MARÍA
3. **UDALETXEA** / AYUNTAMIENTO
4. **ALDE ZAHARRA** / CASCO VIEJO
5. **FRANTZISKOTARREN KOMENTUA ETA KLAUSTROA** / CONVENTO Y CLAUSTRO DE LOS FRANCISCANOS
6. **LAMERA PARKEA** / PARQUE LAMERA
7. **SANTA EUFEMIAKO ZIN-EGITE ELIZA** / IGLESIA JURADERA DE SANTA EUFEMIA
8. **PORTU ZAHARRA** / PUERTO VIEJO
9. **ARRANTZALEAREN MUSEOA** / MUSEO DEL PESCADOR
10. **TALA BEGIRATOKIA** / MIRADOR DE TALA
11. **MERKATU PLAZA** / PLAZA DEL MERCADO
12. **ARITZATXU HONDARTZA** / PLAYA ARITZATXU

BERMEOKO ESKULTURAK ESCULTURAS DE BERMEO

1. **BENITO BARRUETAREN OMENEZKO MONUMENTUA** / MONUMENTO A BENITO BARRUETA
2. **EMAKUME ARRAIN SALTZAILEAK** / VENDEDORAS DE PESCADO
3. **AZKEN OLATUA, AZKEN HATSA** / ÚLTIMA OLA, ÚLTIMO ALIENTO
4. **PORTUKO ITURRI NAGUSIA** / FUENTE PRINCIPAL DEL PUERTO
5. **MONUMENTO A LOS PESCADORES, BADATOZI** / BADATOZI, ARRANTZALEAK OMENTZEKO MONUMENTUA
6. **OLATUA** / OLA
7. **ALONSO ERCILLAREN BUSTOA** / BUSTO DE ALONSO ERCILLA
8. **EUSKAL SERIE KOSMOGONIKOA** / SERIE COSMOGÓNICA VASCA
9. **ITZULERA (MUTILTXUE)** / EL REGRESO (MUTILTXUE)
10. **XIXILI** / XIXILI
11. **ILARGI AMANDREAREN MAMUAK**
12. **HILARRIAK** / ESTELAS
13. **EMAKUME ESNE-SALTZAILEA** / LA LECHERA
14. **TARASKA**



12



11



5

11

12



